




Interreg
POCTEFA
FORMA NAEN



Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatutako proiektua
Proyecto cofinanciado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
Projet co-financé par le Fonds Européen de Développement Régional (FEDER)

Mugaz gaindiko enplegua

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak, mugaren bi aldeetan garapen bizian dauden enplegu-guneak dauzka. Aukeraz betetako eremu partekatua izan arren, oraindik ez dute hala ikusten ez enpresek ez langileek.

EMPLEO izeneko proiektuari esker, mugaz gaindiko enpleguari buruzko diagnosi bat burutu zen, eta informazio-atari bat ere abiarazi zen. Mugaz gaindiko lan-fluxuen garapena oztopatzen duten arazoak gainditzeko xedez, honako hau indartzea proposatu zuen ikerketak:

- “Bizilagunaren” hizkuntza ikastea.
- Langileei alor administratibo eta fiskaleko laguntza eskaintzea.
- Langileen, ikasleen, irakasleen eta ikerlarien trukeak antolatzea.


Prestakuntza; bai ezagutza gisa ulertuta, lehenengo fasean, eta bai gauzatze-gaitasun gisa ulertuta, bigarren fasean. Prestakuntza **Forma NAEN** proiektuko estrategiaren ardatza da, zeinaren xedea, epe luzera, Euroeskualdean kontratazio-ahalmena duten sektoreen uztartze profesionala den, batik bat, automobilgintzaren sektorearena.

Forma NAEN: XEDEA




TREBATZEA

Mugaz gaindiko langileek hizkuntza-gaitasun teknikoak eskuratzea eta lurraldeetako eragileek mugaz gaindiko enpleguaren alorreko izapide administratiboak ezagutzea aldeztu aurreko ezinbesteko betekizunak dira, eta tokian tokiko errealitateari egokitu ahal izateko trebakuntza zehatzak eskatzen dituzte.



ALBOAN EGOTEA

Gaitasunak balioztatzeari eta ikasketak homologatzeari esker, langileek enpresarien aurrean euren ezagutzak eta esperientzia optimizatzeko aukera izango dute, eta enpresariak ere laguntza beharko dute sektore oparoenetan dauden aukeren ikusgarritasuna hobetzeko.



LANBIDERATZEA

Mobilizatzea eta pertsonak mugiaraztea. Mugikortasuna lanbideratze-prozesuaren ardatza da, nola langile gaituentzat hala horien trebakuntzaz arduratzen diren ikasle, irakasle eta ikerlariarentzat, zeinak, era berean, enpresekin lankidetzan jarduten baituten garapenaren eta ikerketaren alorrean.



Forma NAEN: EKINTZAK

ADMINISTRAZIO- ETA MERKATARITZA-TEKNIKARIENTZAKO TREBAKUNTZA

- Heziketa zikloak parekatzearen bidez, gaitasun profesionalak identifikatzea.
- Praktiak burutzeko ikasleak hartu ditzaketen enpresen zerrenda bat osatzea.
- Ikasle eta irakasleentzako heziketa plan bat diseinatzea (moduluak eta unitate didaktikoak).
- Test pilotoa: mugaz gaindiko eskaintza bat abiaraztea eta «Student Lab» bat ezartzea (enpresa-simulazio bat, non eskualde desberdinetako ikasleek mugaz gaindiko administrazio-kudeaketaren alorreko zeregin erreal ugari burutuko dituzten).

BALIOKIDETASUNAK ETA GAITASUNEN BALIOZTATZEAK AUTOMOBILGINTZAREN SEKTOREAN

- Konpetentzien baliokidetasuna finkatzeko metodologia bat zehaztea (kalifikazioen esparru nazionalaren analisia, jarduera-profilak, hezkuntza-estandarren erkaketa).
- Prestakuntza teknikoaren ematea konpetentzien egiaztapena eta homologazioa lortzeko: baliozkotze-tresnak sortzea eta atzerrian lortutako ikaskuntzen emaitzak onartzea.
- Mugikortasun egiaztatua probatzea (ikasleentzako mugikortasun keta eta esperientziaren aurkezpena).
- Lurraldeko esperimentazio- eta hedapen-ikuspegiak berraztertzea.

HIZKUNTZA-GAITASUN TEKNIKOAK ESKURATZEA

- Administrazio-kudeaketaren eta automobilgintzaren alorrean, bi hizkuntzetako (frantsesa eta gaztelania) hiztegi teknikoak finkatzea.
- Urruneko trebakuntza bat diseinatzea eta sortzea (onlineko plataforma bat, babesa eta ahozko komunikazio ikastaroak eskainiko dituen).
- Trebakuntzak abiaraztea.

MUGAZ GAINDIKO ESPAZIOA AUKEREN ESPAZIO GISA OPTIMIZATZEA

- Lehenengo eta bigarren zikloko ikasleentzat sentsibilizazio plan bat diseinatzea.
- Trebakuntza lantzeko jarduerak eta erronkak diseinatzea mugikortasuna eta jardueren egikaritzea sustatzeko.
- Mugaz gaindiko CoP jardunaldiak, printzipio horizontalak jorratzeko (hiritartasuna, berrikuntza, garapen jasangarria ...).

Forma NAEN: ZEHARKAKO ETA ETENGABEKO KOMUNIKAZIOA

Ikasleek, formatzaileek, enpresek, langileek eta erakunde publikoek proiektuan zehar egingo diren komunikazio-ekintza guztietan esku hartuko dute, Euroeskualdearen eremu osoan burututako ekimen eta ekintzen emaitzak denbora errealean hedatzeko.

- Ezagutzak eskuratzea, jarduteko gai izatea eta eginikoa ezagutaraztea; prestakuntzatik abiatuta lanbideratzera heltzeko eta lanbideratzeak prestakuntza eta informazio-operatiboaren hedapena indartu ditzan.
- Euroeskualdea lan-aukeren eta mugikortasunaren espazio gisa ikus dezagun

Aipatu beharrekoa da Forma NAEN ekimena (eta ondorioz, azterketa hau), Eskualdeko Garapeneko Europako Funtsak (EGEF), %65-ean diruz lagunduta dago, Interreg V-A España-Francia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren bitartez. POCTEFAren helburua Espainia-Frantzai-Andorraren arteko mugen inguruko lurraldeen arteko integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da. Laguntza honek mugaz gaindiko jarduera ekonomiko, jarduera sozial eta ingurumen jardueren garapenean jartzen du arreta, lurraldeko garapen jasagarri baten aldeko talde-estrategia baten bidez.



© F. de Baillencourt - Shutterstock - euoregion-naen.eu

Interreg
POCTEFA
FORMA NAEN



Kideak

EUROREGION
EUROESKUALDEA
EUROREGION



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Gobierno de Navarra
Departamento de Educación



Tknika

Marlene Zenteno Laskabea Urti
Centro de Investigación en FP Basculi
Basque VET Research Centre



EURO INICIATIVA
GOBIERNO VASCO



Partaite elkartuak

